

LIBURU  
AURRERAPENA

Aurrez poesia eta kronika landu ditu Goizalde Landabaso Exeberrik, eta 'Krakovia' du lehen eleberria. Protagonista ospitale batera heldu da, eta ez daki zer gertatu zaion. Mina du, eta helduleku bakarra bururatu zaio denari buelta emateko: umorea.

# Krakovia

**G**ua hala moduz joan da eta hortz-artean abestia nuela esnatu naiz... Arrain bat oparituko dizut nola hazten den ulertzeko, zenbat ur behar duen amasteko, zenbat ur, bizitzeko, harri pila bat dugu metatua begien atzeko aldean... Mezu sekretuak uzten dizkirate amets ondorenetan, baina ez ditut seinaleak ulertzen; alegia, badakidala mezuak direla, baina ez zer esan nahi didaten. Nano komunezko ispilu zatira joan naiz begien atzeko aldean harririk ote dudan ikusteko. Ez dut, baina, harririk ikusi, satellite galdu bat eta ahitu den izarra besterik ez. Barrez lehertu naiz bat-batean. Ni baino gauza irrigarriagorik ez dagoela inguruan berretsi dit ispilutxoak. SH bere aulki elektrotik barre algaraka ari da. Ai, Krakovia. Gelara itzultzerakoan ikusi dut atea erdi zabalik dagoela; zarratuta zegoen. Norbait zelatan dabilkit; ni ez naizen norbait ibili bide da nire mundua kamustu guran.

Mamuak? Espioiak? Jainkoa? Jainkoa... hahaha, honetaz ere egingo luke barre eta arre Hawkingek. Nagiak atera ditut zarata barik, etxean nengoela pentsatu dut segundo erdiz; etxea, zer ote da etxea? Nik egiten dut etxea etxe, ala ni gabe ere han urrunean etxeak zutik dirau? SH ere esnatu zait, eta orduan jabetu naiz etxetik urrun nagoela, bistak dituen ziega antzekoa dela hau eta nire gorputzaren kontrako borrokan ari naizela. Galtzen, beste behin ere. Borroka honetan nik baino ezin baitut irabazi, nik baino ez galdu. Isiltasun honek iraungo balu... Baina ez du iraun. Ostikoka sartu da Arantza.

«Egun oh, amante, apartamentu osoa zuretzat, e! Hau suertea, gero! Eta hipotekarik ez!». Atsegina da Arantza. Ironia barik diot berak soberran dauka-eta: Go-

sari berezia dakar, hurrengo 24 orduotako azken otordu gano-razkoa izango delako. «Likidoak edaten hasi orduko» diost, eta disfrutatzen. Plastikozko galletak, xaramela, sagar eta laranja bana, kafe-hautsa esnearekin, poltsikotik atera duen azal bako intxaur eskukada bat, eta, ezker-eskumara begiratu ostean, aluminio paperean gordetako zerbait utzi dit eskuan: txokolatea. Disfrutatzen. Gero ekarriko omen dizkirate urak. Zer ur izango da, Fukushimakoa? Beste koloredun bat sartu da, «kolonoskopiarena berrestera», dio. Joder, benetan, zer berretsi eta zer betetsi... Kolonoskopia hitza ahantz dezakezun zerbait balitz bezala. Kolono eta skopia, akorduan dut. Intifadarako gerrakiderik ez dut, SH arerioaren satorra baita, zulo beltzak bere kontua baitira. «Hitzordua daukagu bihar goizean», eta klisk egin dit begiarekin.

Emozionatuta nago. Hitzordu beltza!! «Kolono eta Skopia palestinarak dira?». Koloredunak segundo erdiz begiratu dit eta gero aginduak utzi dizkit mesanotxeko mahaietan. «Agian judutarrak dira biak... edo hirurak», esan diot pentsakor. Makinak «goikoek» erosten dituztela erantzun dit. «Merkatua Berlinen dago». Orain ni gelditu naitzaio begira. «Alemaniarrak dira, beraz!». Koloredunak ez daki zer erantzun eta Arantzari begiratu dio. Gosari-hondarren bila etorriko dela gero diost Arantzak eta koloredunari ezer esan barik joan da. Koloredunari orduan telefonoak jo dio. «It's raining man, aleluya, it's raining man...». Bai, démodé dago koloreduna. Ez naiz, bada, Magritten koadro batean egongo, ez? Koloredunak, jaso berri duen deian sartua bete-betean, agurtu ere ez

dit egin eta ateari kolpe latza eman dio. Bera irten eta hirugarren koloreduna sartu da. Harrowseko beherapen aldia da gela

hau. Bakardadea sentitzeko astirik ez dut izan, eta nahiko nuke apur bat sentitu, ezerezaren setioan egon, nire pentsamenduen oihartzuna aditu.

Zarena zarena, oso bakarrik zaudelarik ere, mundua zure irudimena eman dago eta deiadar egiten dizu antzara basatiak lez kitzikaturik txilioka, gauzen familia duzun lekua behin eta berriro iragarritz. Mary OLIVER


Eguna hitzez beterik dago; berba eta berba eta berba gauzen munduan dudan lekua iragarritz. Datorren orok irribarrea dakar aurpegian. Zoriontsuak dira atrezzo humanoideak. Ez dakit sartu orduko alaitasunaren pilula hartzen ote duten edo ni ote

naizen hain zoriontsu egiten dituen. Galdera hauek bururtzea ere! Nik egiten ditut zoriontsu, argi dago! Koloredunak esku-bidetik sartzen didaten pozoia ondo doala behatu du eta ondoren azaldu didanez odola aterako didate laster. «Ez nago baraurik!». «Berdin dio», erantzun dit fermu, aterako didate eta kitto. Eta kitto. Errelebo-lasterketa, hemen. Hortz-zuri doktorea agertu da eta berak hartu dio lekukoa koloredunari (kirol speaker tonuarekin irakur ezazu hau). Begirada bizkorra eman dio nire gosariari, baina bera, SH ikustera dator. Zer den dakienetik interesa apalduko zitzaioela pentsatzen nuen, baina badirudi sugarrak egondako tokian beti dagoela txingarrik. «Esan didate badakitela, ustez, zer duzun; bikain, ez?». Super,

txo! SH ikustera dator eta antibiotikoa ondo jasaten ari ote naizen berrestera. «Agudo hasiko da efektua egiten». Agudo, existentziaren neurketan, gogoan izan, beste pare bat egun behar ko baititut. Ez dakit nire gorputzak pilula gehiago har dezakeen baina besteren bat sartzen baidate cyborg bilakatuko naiz. Transhumanismoa edo. Krakoviako gida irakurri ote dudan. Ezetz, nik, astirik ez dut izan! Baina irakurriko dudala agindu diot, eta maparekin kontuz ibiliko naizela. Mapa nahiago duela eraman esan dit. «Zer dago, bada, altxorraren bidea?».

Ez du barrerik egin, beraz, mapa horrek zerbait du. Zer den, ordea, ez dut jakingo. Mesanotxean gida ikusi eta mapa kendu baitio. Haize ufadak eraman du berarekin E|orduizapatarietxe

Hortz-Zuri doktorea, eta gosaritzarra amaitzeko tartea utzi didate. Urrezko minutua... eta gero, bisita. Eta beste bisita bat. Eta beste bat. Eta koloredun bat agertu da, pare bat garrasi bota ditu, jende asko dagoela eta gaixoak bakea behar duela. Galarrena efektua. Bisita denak jagi eta ari- neketan alde egin dute. Koloredunak klisk egin dit begiarekin eta joan egin da. Uste dut lokartu naizela tarte batez eta ez tul txikiak esnatu nauela. Odola ateratzerat dator kit koloredun berria. Erdi lokarturik egon arren, besoa hartu dit eta ukondoaren toleduran tak-tak egiten didan bitartean, euskara perfektuan esan dit: «Nik ezagutzen zaitut, baina... permanentea egin duzu...». Erantzuteko astirik eman gabe jarraitu du. «Idazlea zara... Zuk Jara idatzi duzu!».



JAIONE DAGDROMMER

**'Krakovia'**  
Egilea: Goizalde Landabaso.  
Argitaletxea: Erein.  
Generoa: Eleberria.